

6- Bezeroarekiko harremanak:

Bezeroekin izango den harremana mota ezberdinetakoa izango da, bai bezero berriak lortzeko bai eta dauzkagunak mantentzeko eta salmentak handitzeko.

Batetik, internet bidezko harreman automatizatua egongo da. Gure web orrian (www.eurittak.eus) produktua eskuratzeari gain, ohiko galderari erantzuna eskainiko dizkien atal bat egongo da. Modu honetan, bezeroek modu erraz, nahi dutenean eta nahi duten tokitik lortu ahaliko dute gure produktua. Sistema automatikoa erraza eta sinplea izango da, edonork erabiltzeko moduko, dena den, "Ohiko galderak" atalean haien zalantzak argitzeko lekua topatuko dute. Dena den, e-mail bidezko harreman pertsonalizatua jasotzeko aukera egongo da. Azkenik, sare-sozialen bitartez gure produktuen berri emango diogu ahalik eta bezero segmentu zabalenera.

Bestetik, Eurittak® eskuragarri egongo diren saltokietan arreta pertsonalizatua jasotzeko aukera egongo da, saltzaileek aurretiko prestakuntza jasoko dute produktuaren ezaugarriak ezagutzeko eta horrela bezeroei beharrezko informazioa eta laguntza emateko.

